



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEA
COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y SOLICITUDES CIUDADANAS**

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN
ESKAEREN BATZORDEA**

Aditzera ematen dizut aldaketa bat izan dela Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordea otsailaren 10ean arratsaldeko 16:00etan egitekoa den bilkuran: bilkurak ondoko gaia izango du 1 bis puntu modura:

- 1 bis Bakearen aldeko Nazioarteko Brigadak erakundearen agerraldia, erakundearen eskaerarekin bat etorri eta batzordeak eskaturik, azaltzeko giza eskubideen defendatzaileek zernolako egoera larria bizi duten Mexikon jazarpen, mehatxu eta erasoengatik.

Eusko Legebiltzarra, 2010eko otsailaren
2a

**COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y
SOLICITUDES CIUDADANAS**

Pongo en su conocimiento que la sesión de la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas prevista celebrar el día 10 de febrero, a las 16:00, incluirá como punto 1 bis el siguiente asunto:

- 1 bis Comparecencia de la organización Brigadas Internacionales de Paz, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por dicha organización, para presentar la grave situación de hostigamientos, amenazas y ataque que sufren los defensores de los derechos humanos en México.

Parlamento Vasco, 2 de febrero de 2010

**Andoni Iturbe Mach
Legelaria / Letrado**





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEA
COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y SOLICITUDES
CIUDADANAS**

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN
ESKAEREN BATZORDEA**

**COMISIÓN DE DERECHOS
HUMANOS Y SOLICITUDES
CIUDADANAS**

Honen bidez dei egiten zaizu Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen bilkurara. Bilkura otsailaren 10ean (asteazkena) izango da, 16:00etan, Eusko Legebiltzarreko 3. aretoan. Hauxe izango da

Pongo en su conocimiento que la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas ha sido convocada para el día 10 de febrero, miércoles, a las 16:00, en la sede del Parlamento Vasco (sala 3), con arreglo al siguiente

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

1. 2009ko abenduaren 22an egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.
2. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak aurkeztutako legez besteko proposamena, Kubako Gobernuaren errepresioaren biktima den Joani Sánchez filologo, blogari eta kazetari kubatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0159]
3. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak aurkeztutako legez besteko proposamena, Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskiari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0162]
4. Eskariak eta galderak.

1. Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 22 de diciembre de 2009.
2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco sobre solidaridad y apoyo a la filóloga, "bloguera" y periodista cubana Joani Sánchez, víctima de la represión gubernamental en Cuba, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0159]
3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco relativa a la matanza perpetrada en la isla filipina de Mindanao, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0162]
4. Ruegos y preguntas.

Eusko Legebiltzarra, 2010ko urtarrilaren 28a

Parlamento Vasco, 28 de enero de 2010

Legelaria,

El letrado,





Andoni Iturbe Mach



Sobre solidaridad y apoyo a la filóloga, "bloguera" y periodista cubana Joani Sánchez, víctima de la represión gubernamental en Cuba (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0159)

La Mesa, en su reunión del día 1 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

A la Mesa del Parlamento Vasco

Carmelo Barrio Baroja, Parlamentario del Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en Pleno sobre solidaridad y apoyo a la filóloga, "bloguera" y periodista cubana Joani Sánchez víctima de la represión gubernamental en Cuba.

Justificación:

La filóloga y "bloguera" cubana Joani Sánchez fue detenida el pasado día 6 de noviembre en La Habana por agentes policiales que la golpearon y amenazaron para impedir que participara en una manifestación contra la violencia por una céntrica calle de la capital cubana.

Joani Sánchez forma junto con unos compañeros "blogueros" un grupo contestatario y disidente que denuncia la censura gubernamental y la intolerancia contra cualquier manifestación crítica.

Recientemente ha recibido diferentes premios por su trabajo periodístico entre los que destacan el Premio "Ortega y Gasset 2008", el premio al mejor Weblog de The Bob,s 2008 y ha sido elegida por la revista "Times" como una de las 100 personas más influyentes, etc.

Así mismo su marido, el periodista cubano Reinaldo Escobar, fue perseguido y agredido según han podido comprobar también el pasado día 20 de noviembre.

Por ello, solicitamos al Pleno del Parlamento Vasco la aprobación de la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY:

Kubako Gobernuaren errepresioaren biktima den Joani Sánchez filologo, blogari eta kazetari kubatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz (Tramitatzeako onartzea)
(09/11.02.01.0159)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 1eko bileran, erabaki du tramitatzeako onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazita-koari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularrako legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Kubako Gobernuaren errepresioaren biktima den Joani Sánchez filologo, blogari eta kazetari kubatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz.

Zioa:

Joani Sánchez filologo eta blogari kubatarra atxilotu zuten azaroaren 6an La Habana; polizia jipoitu eta mehatxatu egin zuten, era horretara eragotzi nahi baitzioten indarkeriaren aurkako manifestazio batean parte hartzea Kubako hiriburuko erdialdean.

Joani Sánchezek eta beste lagun blogari batzuek osatzen duten talde ezkonformista eta disidenteak salatu egin ditu gobernuaren zentsura eta intolerantzia edozein adierazpen kritikoren aurka.

Hainbat sari jaso berri ditu kazetari gisa egindako lanagatik, horien artean azpimarratzekoak dira "Ortega y Gasset 2008" saria eta "The Bobs 2008" saria weblog hoberenari. Horrez gain, "Times" aldizkariak aukeratu izan du gehienik eragin duten 100 pertsonen zerrendarako, eta abar.

Era berean, egiaztatu ahal izan den bezala, bere senarra, Reinaldo Escobar kazetari kubatarra, jazarri eta kolpatu egin zuten azaroaren 20an.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrari eskatzen diogu onetsi dezala LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN hau:

"El Parlamento Vasco muestra su apoyo y solidaridad con la periodista, filóloga y "bloguera" cubana Joani Sánchez, así como con su familia y compañeros de trabajo.

Así mismo, condena las diferentes formas de represión que han sufrido por parte de las autoridades cubanas e insta al Gobierno de Cuba a respetar los derechos humanos y las libertades democráticas, en particular la libertad de expresión, poniendo fin, en consecuencia, al hostigamiento, detenciones ilegales y encarcelamientos de disidentes, periodistas, bibliotecarios, librerros e intelectuales cubanos".

En Vitoria, a 23 de noviembre de 2009

Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco. Leopoldo Barreda de los Ríos, portavoz

"Eusko Legebiltzarrak babesa eta elkartasuna adierazten dio Joani Sánchez kazetari, filologo eta blogari kubatarri, baita bere senitarteko eta lankideei ere.

Era berean, agintari kubatarren aldetik jasan dituzten errepresio-modu guztiak gaitzesten ditu eta Kubako Gobernuari eskatzen dio errespetatu ditzala giza-eskubideak eta askatasun demokratikoak, bereziki adierazpen-askatasuna; eta, ondorioz, bukatu daitezela disidente, kazetari, liburuzain, liburu-saltzaile eta intelektual kubatarren aurkako jazarpenak, legez kontrako atxilotetak eta kartzelaratzek".

Gasteizen, 2009ko azaroaren 23an

Carmelo Barrio Baroja, Euskal Talde Popularrerko legebiltzarkidea. Leopoldo Barreda de los Ríos, bozeramailea

Sobre solidaridad y apoyo a la filóloga, "bloguera" y periodista cubana Joani Sánchez, víctima de la represión gubernamental en Cuba (Enmiendas) (09/11.02.01.0159)

La Mesa, en su reunión del día 21 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanos y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-EZKER BATUA BERDEAK

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco condena las diferentes formas de represión mediante las que se cerceña la pluralidad política y la libertad de expresión en cualquier país del mundo. Consecuentemente, el Parlamento Vasco recuerda al Gobierno cubano que el respeto a los derechos humanos y las libertades democráticas, en particular la libertad de expresión, forma parte esencial del progreso de los pueblos.
2. El Parlamento Vasco condena el embargo de Estados Unidos a Cuba, que, entre otras cosas, priva a todo el país de conexión a Internet".

GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

Se propone la modificación del párrafo número 2, quedando redactado como sigue:

"Expresa asimismo su solidaridad con las iniciativas de la oposición democrática y pacífica cubana y con la voluntad de contribuir, a través del diálogo político, a la defensa y protección de los derechos humanos, haciendo avanzar el proceso de reforma y los cambios tendentes hacia una democratización efectiva en Cuba".

Kubako Gobernuaren errepresioaren biktima den Joani Sánchez filologo, blogari eta kazetari kubatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz (Zuzenketak) (09/11.02.01.0159)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 21eko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Euskal Legebiltzar Talde Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

MISTOA-EZKER BATUA BERDEAK LEGEBILTZAR TALDEA

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten ditu munduko edozein herrialdetako aniztasun politikoa eta adierazpen-askatasuna murrizteko erreprezio-forma guztiak. Ondorioz, Eusko Legebiltzarrak Kubako Gobernuari gogorarazten dio giza eskubideen eta askatasun demokratikoen errespetua, eta bereziki adierazpen-askatasunarena, herrien garapenaren funtsezko partea dela.
2. Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten du Estatu Batuek Kubari ezarritako enbargoa, zeinak, besteak beste, Internet konexio gabe uzten baitu herrialde osoa".

EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA

ALDATZEKO ZUZENKETA

2. lerrokada aldatu eta honela jartzea proposatzen dugu:

"Era berean, bat egiten du Kubako oposizio demokratiko eta baketsuaren ekimenekin eta, elkarrizketa politikoa bitartez, giza eskubideak defendatzen eta babesten laguntzeko borondatearekin, Kuban benetako demokratizaziora zuzendutako erreforma-prozesuak eta aldaketek aurrera egin dezaten bultzatuz".



Relativa a la matanza perpetrada en la isla filipina de Mindanao (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0162)

La Mesa, en su reunión del día 1 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

A la Mesa del Parlamento Vasco

Carlos M.º de Urquijo Valdivielso, Parlamentario del Grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en la Comisión de Derechos Humanos, relativa a la matanza perpetrada en la isla filipina de Mindanao.

Justificación:

El pasado 23 de noviembre se conoció la noticia de la masacre cometida en la isla filipina de Mindanao contra un grupo de periodistas y personas del equipo de un político de la familia Mangudadatu cuando se dirigía, precisamente, a formalizar su candidatura de cara a las elecciones del año próximo. La caravana electoral fue interceptada, al parecer, por los partidarios de otro clan de la isla, los Ampatuan, que acabaron de manera brutal con la vida de cuarenta y seis personas, doce de los cuales eran periodistas.

Considerando que el Parlamento Vasco debe pronunciarse ante un hecho tan execrable que vulnera el derecho a la vida, con la pretensión de cercenar de paso la pluralidad política y la libertad de expresión, se somete a la consideración de la Comisión la siguiente proposición no de ley.

1. El Parlamento Vasco manifiesta su más rotunda condena ante la masacre perpetrada en la isla filipina de Mindanao el pasado veintitrés de noviembre. Una matanza agravada con la pretensión de negar la pluralidad política y coartar la libertad de expresión.
2. El Parlamento Vasco a la vez que manifiesta su condolencia por estos crímenes, solicita el esclarecimiento de los asesinatos y la puesta a disposición judicial de sus autores. Asimismo

Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskiari buruz (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0162)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 1eko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazita-koari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Carlos M.º de Urquijo Valdivielso Euskal Talde Popularrak legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduz baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkezten du, Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskiari buruz, Giza Eskubideen Batzordean eztabaidatzeko.

Arrazoiak:

Joan den azaroaren 23an izan genuen kazetari-talde baten eta Mangudadatu familiako politiko baten taldeko pertsonen aurka egindako sarraskiaren berri. Sarraskia, datorren urterako hauteskundeetarako hautagaitza formalizatzeraz zihoazenean gertatu zen, hain juxtu. Antza denez, irla hartako beste klan baten aldekoak, Ampatuandarrak, bidera atera zitzaizkion hauteskunde-karabanari eta bortizki hil zituzten berrogeita sei lagun, haietako hamabi kazetariak.

Uste dugularik Eusko Legebiltzarrak bere iritzia adierazi behar duela horrelako gertakari arbuigarri baten aurrean, bizitzeko eskubidea hausten baitu eta bidenabar aniztasun politikoari eta adierazpen askatasunari bide itxi nahi baitie, honako legez besteko proposamena aurkezten diogu Batzordeari:

1. Eusko Legebiltzarrak guztiz kondenatzen du joan den azaroaren hogeita hiru Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskia. Are hilketa larriagoa, aniztasun politikoa ukatzea eta adierazpen askatasuna oztopatzea izan baitute helburu.
2. Eusko Legebiltzarrak, krimen hauek direla-eta bere samina adierazteaz gain, hilketak argitzeko eta egileak justiziaren esku uztea eskatzen du. Era berean, babesa eta elkartasuna helarazten



traslada su apoyo y solidaridad al gobierno de Gloria Macapagal en su esfuerzo por asegurar la libertad y la pluralidad del pueblo filipino.

3. El Parlamento Vasco acuerda dar traslado del presente acuerdo a la embajada Filipina en España.

Vitoria, 25 de noviembre de 2009

Carlos M.ª de Urquijo Valdivielso, parlamentario del grupo Popular Vasco. Leopoldo Barreda de los Ríos, portavoz

dizkio Gloria Macapagal-en gobernuari, Filipinetako herriaren askatasuna eta aniztasuna ziurtatzeko egiten ari den ahaleginean.

3. Eusko legebiltzarrak erabaki du erabaki hau Filipina uharteen Espainiako enbaxadara bidaltzea.

Gasteiz, 2009ko azaroaren 25a

Carlos M.ª de Urquijo Valdivielso, Euskal Talde Popularreko legebiltzrakidea. Leopoldo Barreda de los Ríos, bozeramailea

Relativa a la matanza perpetrada en la isla filipina de Mindanao (Enmiendas)
(09/11.02.01.0162)

La Mesa, en su reunión del día 21 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cía

GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-EZKER BATUA BERDEAK

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

- "1. El Parlamento Vasco manifiesta su más rotunda condena ante la masacre perpetrada en la isla filipina de Mindanao el pasado 23 de noviembre. Una matanza que se agrava ante la consecuente coartación de la libertad de expresión.
2. El Parlamento Vasco, a la vez que manifiesta su condolencia por estos crímenes, solicita del Gobierno de Filipinas el esclarecimiento de estos asesinatos y la puesta a disposición judicial de sus autores. Asimismo traslada su apoyo y solidaridad al pueblo filipino.
3. (Misma redacción)".

GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco manifiesta su más rotunda condena ante la masacre perpetrada en la isla filipina de Mindanao el pasado 23 de noviembre. Matanza con la cual se ha pretendido negar la pluralidad política y coartar la libertad de expresión.
2. El Parlamento Vasco manifiesta su condolencia por estos crímenes, y solicita el esclarecimiento de los asesinatos y la puesta a disposición judicial de los autores.
3. El Parlamento Vasco muestra su solidaridad y apoyo a las víctimas y a todo el pueblo filipino.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de Filipinas a redoblar los esfuerzos para asegurar la libertad y la pluralidad de la sociedad filipina.
5. El Parlamento Vasco muestra su especial preocupación por la muerte violenta de 29 periodistas en esta matanza, que se suman a otros seis muertos en este año en Filipinas en actos

Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskiari buruz (Zuzenketak)
(09/11.02.01.0162)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 21eko bileran, erabaki du tramitatzeke onartzea Euskal Legebiltzar Talde Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cía

MISTOA-EZKER BATUA BERDEAK LEGEBILTZAR TALDEA

ALDATZEKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak guztiz kondenatzen du joan den azaroaren hogeita hiru Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskia. Are hilketa larriagoa, haren ondorioz adierazpen-askatasuna oztopatua izan baita.
2. Eusko Legebiltzarrak, krimen hauek direla-eta bere samina adierazteaz gain, hilketak argitu eta egileak justiziaren esku uzteko eskatzen dio Filipinetako Gobernuari. Era berean, babesa eta elkartasuna helarazten dizkie filipinarrei.
3. (Idazkera bera)".

EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak guztiz kondenatzen du joan den azaroaren hogeita hiru Filipinetako Mindanao uhartean izandako sarraskia. Sarraski horrek, aniztasun politikoa ukatzea eta adierazpen askatasuna oztopatzea izan ditu helburu.
2. Eusko Legebiltzarrak, krimen hauek direla-eta bere samina adierazten du, eta hilketak argitzeke eta egileak justiziaren esku uzteko eskatzen du.
3. Eusko Legebiltzarrak elkartasuna eta laguntza adierazi nahi die biktimei eta Filipinetako herrari.
4. Eusko Legebiltzarrak Filipinetako Gobernuari eskatzen dio, ahaleginak areagotu ditzala gizarte filipinarraren askatasuna eta aniztasuna bermatzeko.
5. Eusko Legebiltzarrak bere kezka berezia adierazi nahi du, sarraski horretan indarkeriaren ondorioz 29 kazetari erail zirelako, eta horiei gehitu behar zaizkio aurten Filipinetan izan diren beste



que pueden considerarse atentatorios contra el derecho a la información.

6. El Parlamento Vasco acuerda dar traslado del presente acuerdo a la Embajada de Filipinas en España".

sei hildakoak, hain zuzen ere, informazio-eskubidearen kontrakotzat jo daitezkeen jardueretan hil zirenak.

6. Eusko legebiltzarrak erabaki du erabaki hau Filipinek Espainian duten Enbaxadara bidaltzea".
